

4

"PILOTASOROTIK UDAZKENIAN"

-Kaiso amona, kontatuko ahal didazu lehengo udazkenean egiten zenuten gauzek?.

-Bai, orike baietz.

-Esan zaizkidazu, nola egiten zinuzten iretzen lanak, eta basoko lanak zuhaitzetan eta beste gauzak.

-Erranttitzut dakizkitenak, erranttizut. - Zeñetik asi eta zeñetan geldi.

-Nahi duzuna.

-Bai, lendabizikoak iretzea; Iretzean hilebete bat beño geiago, iretzian.

-Zer egiten zenuten?

-Moztu segakin te segadorakin. Bi kanpo aundiek eta itxan eta bi bordetan kanpo aundiek eh!!, lan aunitz, aunitz, unitz gero.

-Gero, lizarrekin zer egiten zifuten?.

-Moztu kaskuak denak, bota lurrera, bildu, zamaka paatu, lotu kuerdakin denak eta eman bordara, barnera.

-Eta zertarako erabiltzen zenuten gero hori?.

-Ardiei neguen emateko, ardien bazka eguneroko.

-Bakarrik iaten zuten hori ardiek?.

-Bai ori geiena eta belarra.

-Baratzian, zer egiten zenuten udazkenean?:

-Baratzian, landu eta erain denetaik.

-Zer, babak ere ereiten zenuten?:

-Denetatik, babak eta denetatik. Babak ilerrak eta alubiek. Eta plantak, azak eta berdure guzietatik.

-Baratziak aundiak izaten ziren, orain baino aundiagokoak?.

-Aundiek, aundiek; baratziak aundiek, ederrak.

-Sagarrekin, zer egiten zen, abuela

-Sagarrekin udondoan bildu ta karri itxera, ta patu montonian eta egoten ziren "hasta mayo", maiezartio edo geiago irauten zuten... itxan sagarrak.

-Basoan, zer egiten zenuten aberekin?

-Abriakin, abriakin ez genuen lanik itten, ayek oyanian egoten ziren.

-Bakarrik?.

-Bai; orai bezala landan ez oyanian.

-Mezara ere yoaten ziñeten?

-Orai beño geiago.

-Eta Errosarioa eta hori nola zen len?

--Errosarioa, entero negu guzien ere aunditz.

-Gaztañen kontuek kontatuko direzu Urbana?.

-Gaztañekin, gaztañetan, peligro aundiak pasatzen giñuzen; iyen aga bat andiekin, aga aundie ta txikie eta bota, goitisko iyen kaskoraño eta andik beiti asi botatzen lurrera gaztañek, aunitz, amalau, amabost karro biltzen giñutzen, amalau amabost karro gaztain, ta karri itxan ondora karrua, gero zanpatu te berexi te saldu.

-Orain ainbat kostatzen ziren gaztañek edo gutxiago?.

-Obeki kasitzen zitzaion orain baño: txertatu te modratu itten ziren ta garbi garbie iduki ta saltzen zen, erregue, lenago pisetu gabe erregue. Erregue duruan nere gazte denboran.

-Zer da eregue abuela?. El robo, el medio robo, eta almotia. Eta oiek ziren lenagoko neurri.

-Zerriek ere erameten ziñuten mendira udazkenean?.

-Bai, bai, bai aunitz, bai, bai.

-Eta zer gertatzen zen zerriekin mendien zirela?.

-Pues tortzen ziren basurdiak eta ernalazten zitufien basurdiak emengo letxonak; eta gero itten zituzten ume

nabarrak majuak; batek egin zituen zortzi ume, dena nabarrak lau koloretakuak eta tortzen ziren anitz lekuetatik aiek kusterak.

MAIZEK

-Sanmigeletan mozten giñuzen eta patu metetan maizek patu metetan; eta gero karri itxera eta pelatu, zuritu, karri ixtera ta zuritu eta gero borkatu, patu zinzilike sekatzek eta alubiek ere aunitz, aunitz alubiek, sabaiek baziren aproposak alubiendako, patzen giñuzen an. Sekatzen zirelarik zanpatu eta sartu zakuetan, urte guzieko naikoa; ez giñuen goserik pasten labrantzako itxan, lana ere bai, baño goserik ez.

EUNEA.

....

-Eta nola mozten zenuten?

Atra zañetaik eta patu xamaka eta gero belarrak egiten zirelaik, soroan leku punttan batean denian barratu nasi gabe, leortzeko ia negue eldu zelaik, negua asi biño leen, bildu xamaka berriz, karri itxera, eta labian sartu

-Labian zertako?.

-Sekatzeko ongi, labian sartu obiek egiten zirenean. Andik atra, ta bagiñuzen katxarroak makil batzuk, aiekin yo eta joaten zaborrara lurrera, eta eskuetan gelditzen zen muilloa.

-Zer da muilloa?.

-Muilloa da arrek uzten zuen arie.

-Ortik arie atrazen zen klase aiekin itten zen manderieak,.

-Guatzeko manderiak?.

- Ori zer itten ziñuten bildu eta gero in manderiak?

-Bai baziren katxarroak ari bezala paretuak. ba ziren katxarroak, ta gero aiek, berriz patu konportan ari aiek itxondoan, bordara yoan baño lenago egin bear zen arie, eta aiek, ari aiek ez ziren endredatzen batre, patzen ziren makil aietan ongi eta an patu konporta bete betia, eta arekin zuritzeko yartzen ziren zaku autse gañetik.

-Eta ez baziguzen zuritzen, zein koloretakoa ziren ba?.

-Illuñek, beltzak zakarrak.

-Eta gero betirako gelditzen ziren zuri?.

-Betiko zurie.

-Eta gero aiek jartzen ziren bola batzuk iñik

-Lendabizikoik bertze katxarro zurezkoan, bueltan bueltan, eta aiek yartzen ziren zuri zuriak ta aietaik pas-
ten ziren bola batzura, eta gero pilota aiek sartu orratz
betekin pilota aiek, zakuke, zakuke eta eman
euntzelariengana .

- Eta zer egiten ?.

-Euntztalariek egiten zuen tela:

-Eta zer erabiltzen zuen aritik tela egiteko?

-Bera, ari ore, ari arrekin.

-Bai, beño makinekin edo nola?.

-Gero ekartzen zitutzen itxera oialak ia iñik. Eun
barako piezak pieza bakotxan, eh?, kartzen zittuten itxira.

-Eta zuk mozten zenuen?.

-Gero nai zena, Bai klaro, eta igual manderiak, batzuk
fiñagokoak; atrazen ziren bi ari klase. Bat fiñagokoa, eta
bertzea lastogokoa: bi, bi belar arrek atratzen zituen bi
gauze, bat arrunt fiñe eta aiek batzuk gauze politagokoak,
atorrak eta denetatik atrazen ziren andik.

Ta emen baziren nonai ariek intzaliak, makome zarrak
ariak itten ta ola aitzen ziren eta gero Oskotza ematen
giñuzen, Oskotza manderiak itteko.

-Eta Oskotza joateko nondik eramaten ziñuten,
menditik?.

-Naibagiñuen menditik, naibaginen karretaratik.

-Ez zegon orai dagon karretera?. Ez. Bai, bazen bai,
batzen, batzen menditik geiena.

-Eta zergatik joaten ziñeten menditik gehiago?.

-Motzago zelakoz. Bai

-Udazkenean ere basoko animaliak asko kantatzen dute?

-Bertze edozein momentuan baño geiago.

Bai eta ontzak aunditz. Eta igelak ere Igelak zer da,
"ranas", bai, bai, eta zapoak eta denak; Udondoan eta
primaberetan, geinena udondoan.

URBANA ARBILLA ARBILLA - ILARREGI (85 urte)